

ESKATZAILEEN BATEZ BESTEKO NOTAREN NORMALIZAZIOAREN INGURUKO ARGIBIDEAK

Eskatzailearen espediente akademikoko batez besteko nota normalizatuari esleitutako puntuazioa deialdiaren 3. Atxikian ezarritako parametroen arabera kalkulatu da.

Abiapuntua eskatzailearen ikasketa espedientearen normalizazio koefizientea da, formula honen arabera egiten dena:

$\frac{(\text{Eskatzailearen_BatezBestekoa} \times 10) - (\text{Titulazioaren_BatezBestekoa} \times 10)}{\text{Titulazioko_DesbEstand}}$	Kalkulu hori egiteko behar diren datuak deialdiaren II. eranskinean daude argitaratuta.
---	---

Eskatzailearen espediente akademikoaren batez besteko nota normalizatuari esleitutako puntuazioa (aurkeztutako gainerako merezimenduekin batera argitaratutako behin-behineko puntuazioa osatzen du) formula honen arabera kalkulatzen da:

$= 50 \times \frac{(\text{Geh_NK}) - (\text{Eskatzailearen_NK})}{(\text{Gutx_NK}) - (\text{Geh_NK})}$	Deialdi honetan erabili diren gutxieneko eta gehieneko normalizazio-koefizienteak, balio baxu/altuenen %2,5 kendu ondoren, hurrenez hurren (oinarrietan zehazten den bezala), honako hauek izan dira: CN MIN: -0,9978 CN MAX: 2,6559
---	--

Kalkulu horiek egin ondoren, hautagaien gutxieneko eta gehieneko puntuazioa 0 eta 50 da, hurrenez hurren.

Beraz, nota altuenen %2,5 50 bihurtu da, eta beheko mailan geratu diren noten %2,5i 0 puntuazioa eman zaie, berriz ere oinarrien arabera. Gainerako bitarteko notak 0-50 bitarteko puntuazio bihurtu dira, adierazitako formula erabiliz.